~~BAI JENDAURREKO IKUSKIZUNAK, BAI JOLAS JARDUERAK ETA BAI — JENDAURREKO IKUSKIZUNAK, HERRIKO JAIAK EDO BESTELAKO KULTUR EKITALDIAK DIRELA BIDE — INSTALAZIO EDO EGITURA BEHIN-BEHINEKOETAN, ERAMANGARRIETAN, EDO DESMUNTAGARRIETAN EGITEN DIREN SALMENTAK ARAUTZEKO ORDENANTZA~~

# JENDAURREKO IKUSKIZUNAK, JOLAS JARDUERAK, JAIAK, KIROL ETA KULTUR EKITALDIAK, AZOKAK ETA BESTELAKOAK EGITEAN BIDE PUBLIKOAREN OKUPAZIOA ARAUTZEKO ORDENANTZA

| AURREKO IDAZKERA | IDAZKERA BERRIA |
|---|---|
| **AURKIBIDEA**<br><br>1. artikulua: XEDEA ETA APLIKAZIO-EREMUA<br>2. artikulua: ESKAEREN AURKEZPENA<br>3. artikulua: LIZENTZIA<br>4. artikulua: ~~ASEGURU-POLIZA~~<br>5. artikulua: ~~FIDANTZA~~<br>6. artikulua: ~~ORDAINARAZPEN FISKALA~~<br>7. artikulua: ~~LAN-ARAUDIA, ARAUDI FISKALA ETA GIZARTE-SEGURANTZAKOA BETETZEA~~<br>8. artikulua: ~~BAIMENAREN EZAUGARRIAK ETA BALDINTZAK~~<br>9. artikulua: ~~ORDAINARAZPEN FISKALA~~<br>10. artikulua: ~~INSTALAZIO NAHIZ EGITURA ERAMANGARRI, BEHIN-BEHINEKO EDO DESMUNTAGARRIETAN SALTZEKO GAIAK ETA BALDINTZAK~~<br>11. artikulua: ~~ALDEZ AURRETIKO IKUSKAPENA~~<br>12. artikulua: ~~OSASUN-IKUSKAPENA~~<br>13. artikulua: ~~HERRIKO JAIETAN EDO UDALERRIARENTZAT INTERESGARRIAK DIREN JARDUERETAN JARTZEN DIREN SALMENTA-POSTU IBILTARIAK~~<br>14. artikulua: OSTALARITZAKO ESTABLEZIMENDUEN KANPOKO SALMAHAIAK<br>15.artikulua: ARTISAUTZAKO PRODUKTOEN SALMENTA-POSTUAK<br>16. artikulua: AZOKAK, ERAKUSKETAK ETA ANTZEKOAK (ANTOLAKETA BERAREN MENPE DAUDEN KASETEN ZENBATEKOA)<br>17. artikulua: TXOSNAK<br>18. artikulua: BARRAKAK ETA ZIRKOAK<br>19. artikulua: MUSIKA EKITALDIAK ETA FORMATU TXIKIKO IKUSKIZUNAK BIDE ETA GUNE PUBLIKOETAN<br>20. artikulua: INSTALAZIOAK IREKI ETA IXTEKO ORDUTEGIAK<br>21. artikulua: ZAINTZA ETA SEGURTASUNEKO ZERBITZUAK<br>22. artikulua: BIDE PUBLIKOAREN GARBIKETA ETA ZAINTZA<br>23. artikulua: MEGAFONIA<br>24. artikulua: PUBLIZITATEA<br>25. artikulua: ZEHAPEN-ARAUBIDEA<br>26. artikulua: ARAU-HAUSTEAK<br>27. artikulua: ZIGORRAK<br>28. artikulua: ZIGORRAK ZEHAZTEKO MODUA<br>29. artikulua: ERANTZULEAK<br>30. artikulua: ~~ALDI BATERAKO XEDAPENA~~<br>AZKEN XEDAPEN INDARGABETZAILEA<br>~~1. ERANSKINA~~<br>~~JARDUERA PROTOKOLOA~~ | **AURKIBIDEA**<br><br>1. artikulua: XEDEA ETA APLIKAZIO-EREMUA<br>2. artikulua: ESKAEREN AURKEZPENA<br>3. artikulua: LIZENTZIA<br>4. artikulua: BAIMENAREN EZAUGARRIAK<br>5. artikulua: BALDINTZAK<br>6. artikulua: ERANTZUN ZIBILEKO ASEGURU-POLIZA<br>7. artikulua: FIDANTZA<br>8. artikulua: PUBLIZITATEA<br>9. artikulua: ORDAINARAZPEN FISKALA<br>10. artikulua: LAN-ARAUDIA, ARAUDI FISKALA ETA GIZARTE-SEGURANTZAKOA BETETZEA<br>11. artikulua: INSTALAZIOEN SEGURTASUNA ETA HIGIENEA<br>12. artikulua: INSTALAZIO NAHIZ EGITURA ERAMANGARRI, BEHIN-BEHINEKO EDO DESMUNTAGARRIETAN SALTZEKO GAIAK ETA BALDINTZAK<br>13. artikulua: IKUSKAPENA: AURRETIK, BITARTEAN ETA ONDOREN<br>14. artikulua: OSASUN-IKUSKAPENA<br>15.artikulua: HERRIKO JAIETAN EDO UDALERRIARENTZAT INTERESGARRIAK DIREN JARDUERETAN JARTZEN DIREN SALMENTA-POSTU IBILTARIAK<br>16. artikulua: ARTISAUTZAKO PRODUKTUEN SALMENTA-POSTUAK<br>17. artikulua: AZOKAK, ERAKUSKETAK ETA ANTZEKOAK (ANTOLAKETA BERAREN MENPE POSTU BAT BAINO GEHIAGO DAUDENEAN)<br>18. artikulua: TXOSNAK<br>19. artikulua: BARRAKAK ETA ZIRKOAK<br>20. artikulua: MUSIKA EKITALDIAK ETA FORMATU TXIKIKO IKUSKIZUNAK BIDE ETA GUNE PUBLIKOETAN<br>21. artikulua: ORDUTEGIAK<br>22. artikulua: ZAINTZA ETA SEGURTASUNEKO ZERBITZUAK<br>23. artikulua: BIDE PUBLIKOAREN GARBIKETA ETA ZAINTZA<br>24. artikulua: ZEHAPEN-ARAUBIDEA<br>25. artikulua: ARAU-HAUSTEAK<br>26. artikulua: ZIGORRAK<br>27. artikulua: ZIGORRAK ZEHAZTEKO MODUA<br>28. artikulua: PERTSONA EDO ERAKUNDE ERANTZULEAK<br>AZKEN XEDAPEN INDARGABETZAILEA<br>JARDUERA PROTOKOLOA |
| **1. artikulua: XEDEA ETA APLIKAZIO-EREMUA**<br><br>— Udal Ordenantza honen xedea da ~~azaroaren 10eko 4/1995~~ Legeak, jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak arautzen dituenak, | **1. artikulua: XEDEA ETA APLIKAZIO-EREMUA**<br><br>— Udal Ordenantza honen xedea da abenduaren 23ko 10/2015 Legeak, jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak arautzen |

| | |
|---|---|
| ezarritako zehaztapenak osatzea Zarauzko udalerriari dagokionez.<br><br>— Bereziki, herriko jaiak edo bestelako kultur ekitaldiak egiten direnean, edota salgaiek izaera hori duten kasuetan, egitura eramangarriak, behin-behinekoak edo desmuntagarriak instalatu edo ustiatzeko lizentziak arautzen dira.<br><br>— Ondorengoak bereiziko dira, baina beste forma batzuk ere egon daitezke.<br><br>— Herriko jaietan jartzen diren salmenta-postuak (erroskilak, litxarreriak eta gozokiak, globoak).<br>— Herriko jaietan ostalaritza gremioak kanpoan jartzen dituen salmahaiak.<br>— Produktu tipikoen eta artisautzako produktuen salmenta-postuak.<br>— Jaiak edo kultur ekitaldiak daudenean egiten diren azokak, erakusketak, edo bazkariak (antolaketa beraren menpe dauden egitura ~~edo kaseten zenbatekoa~~ guztiak)<br>— Txosnak.<br>— Barrakak eta zirkoak.<br>— Bide eta zona publikoetako musika ekitaldiak eta ikuskizunak. | dituenak, ezarritako zehaztapenak osatzea Zarauzko udalerriari dagokionez.<br><br>— Bereziki, herriko jaiak edo bestelako kultur/kirol ekitaldiak egiten direnean, edota salgaiek izaera hori duten kasuetan, egitura eramangarriak, behin-behinekoak edo desmuntagarriak instalatu edo ustiatzeko lizentziak arautzen dira.<br><br>— Ondorengoak bereiziko dira, baina beste forma batzuk ere egon daitezke.<br><br>— Herriko jaietan jartzen diren salmenta-postuak (erroskilak, litxarreriak eta gozokiak, globoak).<br>— Herriko jaietan ostalaritza gremioak kanpoan jartzen dituen salmahaiak.<br>— Produktu tipikoen eta artisautzako produktuen salmenta-postuak.<br>— Jaiak edo kultur ekitaldiak daudenean egiten diren azokak, erakusketak, edo bazkariak (antolaketa beraren menpe dauden egitura guztiak)<br>— Txosnak.<br>— Barrakak eta zirkoak.<br>— Bide eta zona publikoetako musika ekitaldiak eta ikuskizunak. |
| **2. artikulua:** **<u>ESKAEREN AURKEZPENA</u>**<br><br>Baimena lortzeko eskaerak Zarauzko Udaleko aurkeztuko dira, ~~lehentasunez~~ baimena eskatu nahi den eguna baino ~~hilabete~~ lehenago;. ~~eta gutxienez 10 egun lehenago. Oro har, eskaeran jarraian adierazten dena jasoaraziko da, jardueraren arabera bereziki erabakitzen diren puntuez gain:~~<br><br>~~— Eskatzailearen izena eta bi deiturak, edota hala badagokio, ordezkatzen duenaren izen soziala edo taldea.~~<br>~~— Ospakizuna egiteko edo instalazioa jartzeko arrazoiak, motibazioak edo helburua.~~<br>~~— Jakinarazpenetarako helbidea eta harremanetarako telefonoa.~~<br>~~— NAN, IFK, pasaportea edo egoitza-baimena.~~<br>~~— Salgaien zerrenda edo egingo diren ikuskizun zein jardueren zerrenda.~~<br>~~— Eskatzen den kokalekua eta instalazioek okupatuko duten gune publikoaren azalera (m2).~~<br>~~— Noizko eskatzen den baimena: datak eta ordutegiak~~ | **2. artikulua:** **<u>ESKAEREN AURKEZPENA</u>**<br><br>Baimena lortzeko eskaerak Zarauzko Udaleko Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ) edo Zarauzko Udalaren zerbitzu telematikoen bidez aurkeztuko dira, baimena eskatu nahi den eguna baino gutxienez 15 egun lehenago; epe laburragoan iristen diren eskaeren tramitazioa ezingo da bermatu.<br><br>Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira. |
| **3. artikulua:** **<u>LIZENTZIA</u>**<br><br>Jendaurreko ikuskizunak edo jolas jarduerak egiteko, hala nola behin-behineko instalazio edo egiturak jartzeko, aldez aurretik Udalak emandako lizentzia eduki beharko da. Bertan, honako hauek zehaztuko dira: instalazioaren titulartasuna eta deskribapena, antolatzailea, kokalekua, baimendutako jarduerak eta indarrean dagoen araudiaren arabera bete beharreko baldintzak,<br><br>Jarduera hori ezin izango da inolaz ere egin ondorengo tokietan:<br><br>- Etxebizitza nahiz merkataritza-jardueretarako sarbideetan<br>- Kafetegi eta/edo tabernen parean<br>- Merkataritza-erakusleihoen parean, erakusleiho osoari nahiz zati bati traba eginez<br><br>Leku berean egiten diren jardueren arteko distantzia elkarri trabarik ez egiteko bezainbestekoa izango da.<br><br>~~Handik gertu dauden eraikinetara transmititu daitekeen gehienezko zarata maila *Pertsonak Zaratatik eta Bibrazioetatik Babesteko Udal Ordenantzan* (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala 30. zk., 1998ko otsailaren 16koa) dago ezarrita eta honakoa da:~~ | **3. artikulua:** **<u>LIZENTZIA</u>**<br><br>Jendaurreko ikuskizunak edo jolas jarduerak egiteko, hala nola behin-behineko instalazio edo egiturak jartzeko, aldez aurretik Udalak emandako lizentzia eduki beharko da. Bertan, honako hauek zehaztuko dira: instalazioaren titulartasuna eta deskribapena, pertsona edo erakunde antolatzailea, kokalekua, baimendutako jarduerak eta indarrean dagoen araudiaren arabera bete beharreko baldintzak, baita hizkuntzari, berdintasunari zein ingurumenari buruzko baldintzak ere.<br><br>Jarduera hori ezin izango da inolaz ere egin ondorengo tokietan:<br><br>- Etxebizitza nahiz merkataritza-jardueretarako sarbideetan<br>- Kafetegi eta/edo tabernen parean<br>- Merkataritza-erakusleihoen parean, erakusleiho osoari nahiz zati bati traba eginez<br><br>Leku berean egiten diren jardueren arteko distantzia elkarri trabarik ez egiteko bezainbestekoa izango da. |

<table>
<tr>
<td>
<table>
<tr><th></th><th>~~EGUNEZ (8:00-22:00)~~</th><th>~~GAUEZ (22:00-08:00)~~</th></tr>
<tr><td>~~Logelak eta egongelak~~</td><td>~~35 dB (A)~~</td><td>~~28 dB (A)~~</td></tr>
<tr><td>~~Ezkaratz-eskailera~~</td><td>~~40 dB (A)~~</td><td>~~35 dB (A)~~</td></tr>
<tr><td>~~Komunak, pasilloak eta sukaldeak~~</td><td>~~40 dB (A)~~</td><td>~~30 dB (A)~~</td></tr>
</table>

~~Dagozkion neurketak interesatuek eskatuta egingo dira. Etxebizitzetara transmititutako zaraten mailak aurreko taulan adierazitakoak baino handiagoak direla egiaztatzen bada, Udaltzaingoa ahaldunduta egongo da jarduera geldiarazteko.~~

Herritarrentzat edo ondasun higiezinetarako arriskutsuak izan daitezkeen jarduera edo ikuskizunetarako ez da lizentziarik emango.

~~Antolatzaileak ordainduko ditu autore-eskubideak.~~
</td>
<td>
Herritarrentzat edo ondasun higiezinetarako arriskutsuak izan daitezkeen jarduera edo ikuskizunetarako ez da lizentziarik emango.

Nolanahi ere, ordenantza honen arabera emandako baimenak ezeztatu ahal izango dira interes publikoko arrazoiengatik eta kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.
</td>
</tr>
<tr>
<td></td>
<td>
**4. artikulua:** **BAIMENAREN EZAUGARRIAK**

Baimena pertsonala eta besterenezina izango da. Baimendutako pertsona edo erakunde titularraren menpeko langileren batek erabiliz gero, dokumentu bidez egiaztatu beharko da.

Pertsona, talde edo elkarte bakoitzeko ezingo da baimen bat baino gehiago eskatu.

Jarduerak edo postuak ezingo dira Udalak adjudikatutako tokitik mugitu.

Instalazioaren ustiapenaz arduratzen diren langileak baimenaren titularrak diren talde edo enpresakoak izan beharko dira.

Instalazio motaren arabera, arautegi honetan eta/edo abenduaren 23ko 10/2015 Legean ezarritako baldintzak ere bete beharko dira.
</td>
</tr>
<tr>
<td></td>
<td>
**5. artikulua: BALDINTZAK**

Baimendutako jarduerak, indarrean dagoen araudiaren arabera, honako baldintza hauek bete beharko ditu:

5.1: HIZKUNTZA BALDINTZAK

- Jarduera guztietan bermatuko da euskararen erabilera. Jarduerak euskaraz edo ele bitan izango dira, beti ere euskara lehenetsita, eta euskarazko ekitaldi eta jarduerek lehentasuna izango dute. Salbuespen gisa, jardueraren muina beste hizkuntzaren batean baldin bada, euskararen erabilera bermatzeko neurriak hartuko dira; besteak beste, sarrerak eta agurrak euskaraz egingo dira.
- Jarduerari lotutako hizkuntza paisaia, bai ahozkoa bai idatzizkoa, euskaraz izango da, eta, ele bietan egin nahi izanez gero, euskarari emango zaio lehentasuna, bai kokalekuaren aldetik (euskarazkoa gaztelaniazkoaren aurretik) bai neurriaren aldetik.
- Jarduerari lotutako mezu idatziak (kartel, esku-orri, prentsa-iragarki, sarrera txartel eta gonbidapen, liburuxka, gutun, deialdi, ohar eta gisakoak), euskaraz idatzi eta ezagutaraziko dira jarduera euskaraz egiten bada; bestela, bi hizkuntza ofizialetan (euskaraz eta gaztelaniaz). Ezingo da gaztelania hutsezko testurik erabili.
- Herritarrekiko harremanetan, lehen hitza euskaraz egingo dute, eta ahal duten guztietan, euskararen erabilera sustatuko
</td>
</tr>
</table>

| | |
|---|---|
| | dute.<br><br>• Idatzizko euskarrien ereduak baimen-eskaerarekin batera aurkeztu beharko dira, euskarazko testuak zuzenak eta egokiak direla ziurtatzeko.<br><br>• Sare sozialetan ere euskararen erabilera bermatu beharko da; euskaraz edo ele bitan, euskara lehenetsita.<br><br>• Haur, nerabe eta gazteentzat berariaz antolatutako jarduerak eta horiekin lotutako hizkuntza paisaia, bai ahozkoa, bai idatzizkoa, euskaraz izango dira.<br><br>• Pertsona edo erakunde antolatzaileek Euskara Departamentuaren aholkua eta laguntza jaso ahal izango dituzte hizkuntza-baldintza hauek betetzeko.<br><br>Baldintza hauen betetze-maila kontuan hartuko da beste baimen bat emateko orduan. Hizkuntza irizpideak bete ezean, ez da baimenik emango.<br><br>• Zarauzko udalerria euskararen arnasgune den aldetik, ez dira baimenduko Zarauzko egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta hizkuntzari dagokionez inpaktu kaltegarri nabarmena duten jendaurreko ikuskizunak, jolas jarduerak, jaiak, kirol eta kultur ekitaldiak eta azokak.<br><br><u>5.2: INGURUMEN BALDINTZAK</u><br><br><u>Zarata:</u><br><br>• Ekitaldi hauek zarata eta bibrazioei buruzko udal ordenantza (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala 191. zk., 2015eko urriaren 6koa) bete beharko dute. Zehazki atal hauek:<br>o Kontzertuen kokapena zein bozgorailuen kokapena zehazteko, auzokideengan erasan akustikorik txikiena eragiteko ezaugarriak kontuan izango dira.<br>o Kontzertuan zehar, zarata- mailak ezin dira 90 dB(A) baino altuagoak izan; maila hori egoera aztertzeko nahikoa denboran zehar neurtuko da, bozgorailutik 5 m-ko distantziara.<br>o Izaera ofizial berezia, kulturala edo interes publiko edo gizarte- interes berezia izateagatik hala aholkatzen diren jarduerak Ordenantza honetatik at geratuko dira.<br><br>• Gainera, araudi honen xede diren instalazioetan, megafonia-sistemetan edo musika-aparatuetan bolumen-mugatzailea jartzera behartu ahal izango ditu Udalak, erabakitzen diren dezibelioetara zigilatuta.<br><br><u>Hondakinak:</u><br><br>• Hondakinak behar bezala sailkatu beharko dira eta bereizita kudeatu.<br><br>• Ekitaldiaren ezaugarrien arabera, Udalak erabakiko du sortutako hondakinak pertsona edo erakunde antolatzaileak berak eraman behar dituen kaleko edukiontzietara, bereziki ekitaldi horretarako jarritako edukiontzietara, edo Garbigunera eraman behar dituen.<br><br><u>Erabilera bakarreko plastikozko tresnak:</u><br><br>• Debekatuta daude erabilera bakarreko plastikozko tresnak, zehazki hauek: mahai tresnak (sardeska, koilara eta koilaratxoak), platerak eta edalontziak.<br><br>• Debekatuta daude poliestireno hedatuarekin egindako edalontzi, katilu eta plater/ontziak. |

<table>
<tr><td></td><td>
5. 3 ANIMALIEN PRESENTZIA:<br><br>
• Debekatuta dago animalien presentzia eta erabilera edonolako ikuskizunetan.<br><br>
• Ekitaldiaren baitan, salbuespenez, animalien presentzia beharrezkoa denean, horien ongizatea eta haienganako tratu ona bermatuko dira. Horretarako, kontuan hartuko dira animalien arreta, mantenua, osasun fisikoa eta egoera emozionala, eta horren inguruan aplikatu beharreko araudi berezia bete beharko da.<br><br>
5.4 BERDINTASUN BALDINTZAK<br><br>
Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren arabera:<br><br>
• Pertsona edo erakunde antolatzaileak modu ez-sexistan erabiliko du komunikazioa dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan.<br>
• Ezin izango dute desberdinkeria, arrazakeria edo xenofobia sustatzen duten irudirik erabili.<br>
• Pertsona ororen partaidetza bermatuta egon behar du.<br>
• Ezin izango da sexua, ideologia, jaioterria, nazionalitatea edo sexu-joera bezalako arrazoiengatik inor diskriminatu.<br>
• Jarduera horren eduki bakar batek ere ez du edukiko inolako mezu eta/edo ikonografia sexistarik.<br>
• Baimena eman beharreko jardueran parte hartuko duten pertsona guztiek emakumeekiko eta gizonekiko errespetuzko eta berdintasunezko tratua edukiko dute une oro, eta ez dute jarrera gogaikarri, iraingarri edo diskriminatzailerik hartuko sexu, ideologia, jatorri etniko, nazionalitate edo orientazio sexualagatik<br><br>
5.5 OSASUNAREN SUSTAPENERAKO ETA ADIKZIOEN PREBENTZIORAKO BALDINTZAK:<br><br>
Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legeak ezarritakoaren arabera:<br><br>
• Debekatuta egongo da kirol- edo kultura-ekitaldietan eta haiek babestekoetan 20 gradu baino gehiagoko edari alkoholdunen publizitatea egitea.<br>
• Nolanahi ere, debekatuta egongo da nagusiki adingabeei zuzendutako kirol- eta kultura-ekitaldietan eta haiek babestekoetan edari alkoholdunen publizitatea egitea.<br><br>
5.6 EGILE-ESKUBIDEAK<br><br>
• Pertsona edo erakunde antolatzaileak ordainduko ditu egile-eskubideak.<br><br>
5.7. UDALAK LAGATAKO MATERIALA<br>
Pertsona edo erakunde interesdunak eskatuta Udalak bere jabetzako materiala laga badu, itzuli egin beharko da, baldintza egokietan, eta, bestela, itzuli ez den o hondatutako materialaren zenbatekoa ordaindu beharko du.
</td></tr>
<tr><td>
<del>4.</del> artikulua: ASEGURU-POLIZA<br><br>
<del>Tamaina txikiko egitura eramangarrien kasuan izan ezik -lizentzian hala erabakiz gero baldintza hau betetzetik salbuetsita geratu baitaitezke- gainerakoetan antolatzaileak edo eskatzaileak egiaztatu egin beharko du aseguru-poliza bat hitzartua duela, instalazio edo jarduera motaren arabera lizentzian erabakiko den zenbatekoaz. Poliza horrek titularren erantzukizun zibila estaliko du, hau da, instalazioen baldintza objektiboen ondorioz edota haien zerbitzupeko langileen lanaren ondorioz bertaratuei eragindako kalteengatik, eta halaber aplikagarri diren arauetan aurreikusitako obligazioak beteko direla ere ziurtatuko du.</del>
</td><td>
6. artikulua: ERANTZUN ZIBILEKO ASEGURU-POLIZA<br><br>
Aseguru polizak pertsona edo erakunde titularren erantzukizun zibila estaliko du, hau da, instalazioen egoera objektiboaren ondorioz edota haien zerbitzupeko langileen lanaren ondorioz bertaratuei edo hirugarrenen ondasunei sortutako kalteengatik. Halaber, aplikagarri diren arauetan aurreikusitako obligazioak beteko direla ere bermatuko du.<br><br>
Ekitaldia egin aurretik, honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:<br><br>
- Aseguru-etxearen ziurtagiria bide publikoan eginiko
</td></tr>
</table>

| | |
|---|---|
| ~~Eskatzailearen ohiko jarduerarako poliza bat hitzartuta dagoenean, egiaztatu egin beharko da poliza hartan estalita geratzen dela baimenaren xede den noizbehinkako jarduera osagarriak berekin dakarren arriskua.~~<br><br>~~Bide eta zona publikoetan egiten diren musika ekitaldiek eta ikuskizunek ez dute baldintza hau bete beharko, ekitaldiaren beraren izaerak bestelakorik aholkatzen ez badu, behintzat.~~ | jarduerak estaltzen dituen erantzukizun zibileko aseguruaren kontratazioa egiaztatuko duena.<br><br>Ekitaldien arabera eta ekitaldiak dituen ezaugarri propioak kontuan hartuta, kopuruak Alkatetzako dekretu bidez zehaztuko dira.<br><br>Ekitaldiaren ezaugarriaren arabera, beharrezkoa denean beste aseguru-polizak kontratatzearen beharra adieraziko da.<br><br>Bereziki, ekitaldi batean boluntarioen lana beharrezkoa denean (kirol ekitaldiak errepideetan eta abar), pertsona horiek jasan ditzaketen kalteak babestuko duen poliza kontratuko da. |
| ~~5.~~ **artikulua:** **<u>FIDANTZA</u>**<br><br>~~Antolatzaileak edo lizentzia eskatzaileak fidantza bat eratu beharko du -lizentzian erabakitako zenbatekoaz- araudi honetan ezarritako obligazio hauen betetzeari erantzun ahal izateko: zigorren zenbatekoa ordaintzea, Udalak lagatako materialak ez itzultzea, eta bidean edo ondasun publikoetan eragindako kalteak ordaintzea, etab.~~<br><br>Edozein ez-betetzerengatik fidantza konfiskatzeaz gain, Zarauzko Udalak ~~kalteengatik~~ edozein kalte-ordain kendu ahal izango du ~~fidantzatik~~. Kalte horien zenbatekoak gordailututako fidantza gainditzen badu, guztia kobratu ahal izateko dagozkion neurriak hartuko dira.<br><br>~~Fidantza itzultzeko derrigorrezkoak izango dira lizentzia ematea proposatu zuen organoaren txostenaz gain, Udaltzaingoaren eta Udal Zerbitzu Teknikoen txostenak, eta horietan zehaztuta agertu beharko da lizentzian ezarritako baldintza guztiak bete egiten direla: musika eta instalazioak ireki eta ixteko ordutegiak, soinu-mailak, barrutiaren garbiketa, baimendu gabeko publizitatea, kartelak eta/edo pankartak jartzea, adin txikikoei alkohola eta/edo tabakoa saltzea… Era berean, lizentziaren xede den jardueraren kontrola egiteko beste txosten tekniko batzuk eskatu ahalko dira.~~<br><br>~~Bide eta zona publikoetan egindako musika ekitaldiek eta ikuskizunek ez dute fidantzarik jarri beharko beren jarduera garatu ahal izateko, ekitaldi edo ikuskizunaren izaerak bestelakorik aholkatu ezean.~~ | **7. artikulua:** **<u>FIDANTZA</u>**<br><br>Fidantza bat eratu beharko da, ezarritako obligazioak betetzeari, zigorren zenbatekoa ordaintzeari, Udalak lagatako materialak ez itzultzeari eta, hala badagokio, bidean edo herri-ondasunetan, hirugarren pertsonen ondasunetan edo eska dakiokeen beste edozeinetan sortutako kalteei erantzuteko.<br><br>Edozein ez-betetzerengatik fidantza konfiskatzeaz gain, Zarauzko Udalak fidantzatik edozein kalte-ordain kendu ahal izango du kalteengatik. Kalte horien zenbatekoak gordailututako fidantza gainditzen badu, guztia kobratu ahal izateko dagozkion neurriak hartuko dira.<br><br>Ekitaldia egin aurretik, egiaztatuko da Udal Zerbitzu Ekonomikoen esku dagoela adierazitako fidantza.<br><br>Ekitaldien arabera eta ekitaldiak dituen ezaugarri propioak kontuan hartuta, kopuruak Alkatetzako dekretu bidez zehaztuko dira.<br><br>Udalak bultzatutako ekitaldiak, irabazi asmorik gabeko erakundeek antolatutako ekitaldiak, interes artistikoa edo Udalarentzat interesgarriak izan daitezkeen horiei fidantza salbuestea proposa liteke.<br><br>Jarduera amaitzean, eta dagokion departamentuak aldeko txostena eman ostean, fidantza automatikoki itzuliko da. |
| | **8. artikulua:** **<u>PUBLIZITATEA (ahozkoa eta idatzizkoa)</u>**<br><br>1- **<u>Ahozkoa edo/eta megafonia:</u>** ordenantza honen xede diren instalazioetan megafonia-sistemak edo musika-aparatuak jartzeko baimena beharko da. Barruti batean instalazio bat baino gehiago badago, ekipo bakar bat jarri ahalko da denentzat, eta bertan bozgorailuen bolumen-mugatzaile bat jarri beharko da, erabakitzen diren dezibelioetara zigilatuta.<br><br>2- **<u>Idatzizko publizitatea</u>**: euskaraz egin beharko da, iragarleek aukeratzen dituzten hizkuntzez gainera. Zuzen idatziko dela bermatzeko, inprimatu edo jarri baino lehen Udaletxean aurkeztu beharko da testu-zirriborroa.<br><br>Antolatutako jardueraren euskarri, dokumentu, irudi eta publizitatean, hizkuntza ez sexista eta inklusiboa erabiliko da.<br><br>Zarauzko kaleetan horretara zuzendutako tokietan baino ez da jarriko. Taula mugikorrak jartzeko baimena ere emango da, eta azoka edo ekitaldia amaitzean kendu egin beharko dira. |
| ~~6.~~ **artikulua:** **<u>ORDAINARAZPEN FISKALA</u>**<br><br>Jarduera edo salmenta nork egiten duen kontuan hartuta, hain zuzen ere, irabazi-asmoa duten enpresak nahiz erakundeak diren ala irabazi-asmorik gabekoak diren kontuan hartuta, bide publikoa okupatzeagatik dagokion ordenantza fiskalaren arabera zehaztutako ordainarazpenak | **9. artikulua:** **<u>ORDAINARAZPEN FISKALA</u>**<br><br>Jarduera edo salmenta nork egiten duen kontuan hartuta, hain zuzen ere, irabazi-asmoa duten enpresak nahiz erakundeak diren ala irabazi-asmorik gabekoak diren kontuan hartuta, bide publikoa okupatzeagatik dagokion ordenantza fiskalaren arabera zehaztutako ordainarazpenak |

| | |
|---|---|
| aplikatuko zaizkie. | aplikatuko zaizkie. |
| ~~7.~~ **artikulua: <u>LAN-ARAUDIA, ARAUDI FISKALA ETA GIZARTE-SEGURANTZAKOA BETETZEA</u>**<br><br>Irabazi-asmoa duten enpresek eta erakundeek ondokoa egiaztatu beharko dute, lizentzia lortu ondoren eta jarduerari hasiera eman baino lehen:<br><br>— Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari dagozkion epigrafeetan alta emana duela, eta ordainketak egunean dituela.<br>— Eskatzaileak dagokion Gizarte Segurantzaren erregimenean alta emana duela eta, hala badagokio, eskaeraren xede den jardueran arituko diren langileek ere alta eman dutela.<br>— Horrez gain, erkidegoz kanpoko eskatzaileek egiaztatu egin beharko dute badituztela lan-baimena eta egoitza-baimena. | **10. artikulua: <u>LAN-ARAUDIA, ARAUDI FISKALA ETA GIZARTE-SEGURANTZAKOA BETETZEA</u>**<br><br>Irabazi-asmoa duten enpresek eta erakundeek ondokoa egiaztatu beharko dute, lizentzia lortu ondoren eta jarduerari hasiera eman baino lehen:<br><br>— Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari dagozkion epigrafeetan alta emana duela, eta ordainketak egunean dituela.<br>— Pertsona edo erakunde eskatzaileak dagokion Gizarte Segurantzaren erregimenean alta emana duela eta, hala badagokio, eskaeraren xede den jardueran arituko diren langileek ere alta eman dutela.<br>— Horrez gain, erkidegoz kanpoko pertsona edo erakunde eskatzaileek egiaztatu egin beharko dute badituztela lan-baimena eta egoitza-baimena. |
| ~~**8. artikulua: <u>BAIMENAREN EZAUGARRIAK ETA BALDINTZAK</u>**~~<br><br>~~Baimena pertsonala eta besterenezina izango da. Baimenaren titularraren menpeko langileren batek erabiliz gero, dokumentu bidez egiaztatu beharko da.~~<br><br>~~Pertsona, talde edo elkarte bakoitzeko ezingo da baimen bat baino gehiago eskatu.~~<br><br>~~Postuak ezingo dira Udalak adjudikatutako tokitik mugitu.~~<br><br>~~Instalazioaren ustiapenaz arduratzen diren langileak baimenaren titularrak diren talde edo enpresakoak izan beharko dira.~~<br><br>~~Instalazio motaren arabera, arautegi honetan eta/edo 4/1995 Legean ezarritako baldintzak ere bete egin beharko dira.~~ | |
| ~~9.~~ **artikulua: <u>INSTALAZIOEN SEGURTASUNA ETA HIGIENEA</u>**<br><br>Instalazioek jendearentzat segurtasun, higiene eta erosotasun baldintzak eskaintzen dituztela egiaztatu beharko da espedientean, teknikari eskudun (ingeniaritza, goi mailako arkitektura edo arkitekto teknikoko tituluduna) baten ziurtapenaren bidez, batez ere ondokoari dagokionean:<br><br>— <u>Egituraren sendotasuna eta instalazioaren funtzionamendua</u>: Egituraren dokumentazio teknikoa aurkeztu beharko da, eta honek Udal Zerbitzu Teknikoen oniritzia izan beharko du.<br><br>— <u>Suteen eta bestelako arrisku kolektiboen aurkako prebentzio eta babes neurriak</u>:<br>• SUAREKIKO ERRESISTENTZIA: Instalazioek eta material sukoiek suaren kontrako tratamendua edukiko dute, eta hau ziurtatzeko suaren kontrako tratamenduaren egiaztagiria aurkeztuko da.<br>  • Beharrezkotzat joz gero, behar adina eta mota egokiko su-itzalgailuak jarriko dira.<br>  • Ahaleginak egingo dira kokalekua ur-hartuneen ondoan egon dadin.<br>• ERRESISTENTZIA MEKANIKOA: Kasu bakoitzean erabakitzen dena.<br>• INSTALAZIO ELEKTRIKOAK: Udal teknikari eskudunak edo | **11. artikulua: <u>INSTALAZIOEN SEGURTASUNA ETA HIGIENEA</u>**<br><br>Instalazioek jendearentzat segurtasun, higiene eta erosotasun baldintzak eskaintzen dituztela egiaztatu beharko da espedientean, teknikari eskudun (ingeniaritza, goi mailako arkitektura edo arkitekto teknikoko tituluduna) baten ziurtapenaren bidez, batez ere ondokoari dagokionean:<br><br>— <u>Egituraren sendotasuna eta instalazioaren funtzionamendua</u>: Egituraren dokumentazio teknikoa aurkeztu beharko da, eta honek Udal Zerbitzu Teknikoen oniritzia izan beharko du.<br><br>Ireki aurretik, Udalak izendatutako langileek ikuskapen teknikoa egingo dute eta, beharrezkoa bada, Osasun Publikoko eskualdeko osasun-zerbitzuek ere osasun-ikuskapena egingo dute.<br><br>— <u>Suteen eta bestelako arrisku kolektiboen aurkako prebentzio eta babes neurriak</u>:<br>• SUAREKIKO ERRESISTENTZIA: Instalazioek eta material sukoiek suaren kontrako tratamendua edukiko dute, eta hau ziurtatzeko suaren kontrako tratamenduaren egiaztagiria aurkeztuko da.<br>  • Beharrezkotzat joz gero, behar adina eta mota egokiko su-itzalgailuak jarriko dira.<br>  • Ahaleginak egingo dira kokalekua ur-hartuneen ondoan egon dadin.<br>• ERRESISTENTZIA MEKANIKOA: Kasu bakoitzean erabakitzen dena.<br>• INSTALAZIO ELEKTRIKOAK: Udal teknikari eskudunak edo |

| | |
|---|---|
| Udalak izendatutako adituak egingo du. Tresna elektriko desberdinen konexioak, berriz, eskatzaileek egingo dituzte, baimendutako instalatzaile elektrikari baten bidez, eta egindako lanak egiaztatzen dituen ziurtagiria aurkeztu beharko dute, betiere Behe Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoak dioena zehatz-mehatz betez. Norbere muntaia elektrikoa behar izanez gero (bai instalazio batzuei argindarra emateko, bai hauen barneko instalazioa egiteko), argindarraren-kontratugileari eskatuko zaio baimendutako instalatzaile argiketariak izenpetu eta Eusko Jaurlaritzako Industriako Lurralde Ordezkaritzak izapidetutako instalazio-buletina.<br><br>– <u>Osasungarritasun eta higieneko baldintzak</u>:<br><br>1.- Janarien manipulazioa duten instalazioak:<br><br>Jaietan, azoketan, eta horrelakoetan aldi baterako jartzen diren instalazioetan (txosnak,…) elikagaiak eta/edo edariak manipulatu, prestatu edo saltzen badira, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak ezarritako baldintza tekniko-sanitarioak bete beharko dira. ~~Arautegi honekin batera daude baldintza horiek (I. eranskina).~~<br><br>2.- Janari manipulaziorik ez duten instalazioak:<br><br>Manipulazio txikiko eta osasun arrisku txikiko janaria saltzen utziko zaie, hala nola ogitarteko hotzak, opilak eta betegarririk gabeko pastelak, betiere janari horiek guztiak ontziratuta badaude, eta baita edariak orokorrean ere. | Udalak izendatutako adituak egingo du. Tresna elektriko desberdinen konexioak, berriz, pertsona edo erakunde eskatzaileek egingo dituzte, baimendutako instalatzaile elektrikari baten bidez, eta egindako lanak egiaztatzen dituen ziurtagiria aurkeztu beharko dute, betiere Behe Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoak dioena zehatz-mehatz betez. Norbere muntaia elektrikoa behar izanez gero (bai instalazio batzuei argindarra emateko, bai hauen barneko instalazioa egiteko), argindarraren pertsona- edo erakunde-kontratugileari eskatuko zaio baimendutako instalatzaile argiketariak izenpetu eta Eusko Jaurlaritzako Industriako Lurralde Ordezkaritzak izapidetutako instalazio-buletina.<br><br>– <u>Osasungarritasun eta higieneko baldintzak</u>:<br><br>1.- Janarien manipulazioa duten instalazioak:<br><br>Jaietan, azoketan, eta horrelakoetan aldi baterako jartzen diren instalazioetan (txosnak,…) elikagaiak eta/edo edariak manipulatu, prestatu edo saltzen badira, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak ezarritako baldintza tekniko-sanitarioak bete beharko dira.<br><br>2.- Janari manipulaziorik ez duten instalazioak:<br><br>Manipulazio txikiko eta osasun arrisku txikiko janaria saltzen utziko zaie, hala nola ogitarteko hotzak, opilak eta betegarririk gabeko pastelak, betiere janari horiek guztiak ontziratuta badaude, eta baita edariak orokorrean ere. |
| **~~10.~~ artikulua: <u>INSTALAZIO NAHIZ EGITURA ERAMANGARRI, BEHIN-BEHINEKO EDO DESMUNTAGARRIETAN SALTZEKO GAIAK ETA BALDINTZAK</u>**<br><br>Jarduerarako aurreikusten den instalazio motaren arabera erabakiko da zein gai sal daitekeen.<br><br>Guztiz debekatuta dago produktu galkorrak merkaturatzea, horiek egoki kontserbatzeko beharrezko diren baldintza tekniko-sanitarioak betetzen ez dituzten postuetan.<br><br>Jarduera hastean, osasun-ikuskapena behar duten produktuen saltzaileek janariekin batera eraman beharreko merkataritza-dokumentuak aurkeztu beharko dituzte, janari horien jatorri baimendua egiaztatzeko. Dokumentu horien ordez, antolatzaileak zinpeko erantzukizunpeko bat aurkez dezake.<br><br>Jarduera hastean, dokumentu bat aurkeztu beharko da eta, bertan, salduko diren janarien zerrenda, janari mota eta horien jatorria zehaztuko dira, eta baita horiei aplikatu beharreko arautegiek ezarritako baldintzak bete izana ere.<br><br>Ez da inoiz ere janaririk jarriko lurrean bertan eta jendaurrean daudenak behar bezala babestuta egongo dira.<br><br>Txosnetan, ostalaritzako establezimenduen kanpoan eta behin-behineko instalazioetan erabiliko diren edalontzi eta antzekoak erabilera bakarrekoak eta biodegradagarriak edota jarduera jakin baterako espresuki egindako edalontzi berrerabilgarriak izango dira, eta antolatzaileak bermatuko du horien higienea.<br><br>~~Guztiz debekatuta dago 18 urtetik beherakoei edari alkoholdunak edota tabakoa saldu edo hornitzea ondoko legeetan ezarritakoa betez: Eusko Legebiltzarraren 15/1988 Legea, azaroaren 11koa, drogen menpekotasunen arloan aurrea hartu, lagundu eta gizarteratzeari buruzkoa eta 28/2005 Legea, abenduaren 26koa, tabakismoaren kontrako osasun neurriak ematekoa eta tabakoaren salmenta, hornidura, kontsumoa eta publizitatea arautzekoa.~~ | **12. artikulua: <u>INSTALAZIO NAHIZ EGITURA ERAMANGARRI, BEHIN-BEHINEKO EDO DESMUNTAGARRIETAN SALTZEKO GAIAK ETA BALDINTZAK</u>**<br><br>Jarduerarako aurreikusten den instalazio motaren arabera erabakiko da zein gai sal daitekeen.<br><br>Guztiz debekatuta dago produktu galkorrak merkaturatzea, horiek egoki kontserbatzeko beharrezko diren baldintza tekniko-sanitarioak betetzen ez dituzten postuetan.<br><br>Jarduera hastean, osasun-ikuskapena behar duten produktuen saltzaileek janariekin batera eraman beharreko merkataritza-dokumentuak aurkeztu beharko dituzte, janari horien jatorri baimendua egiaztatzeko. Dokumentu horien ordez, pertsona edo erakunde antolatzaileak zinpeko erantzukizunpeko bat aurkez dezake.<br><br>Jarduera hastean, dokumentu bat aurkeztu beharko da eta, bertan, salduko diren janarien zerrenda, janari mota eta horien jatorria zehaztuko dira, eta baita horiei aplikatu beharreko arautegiek ezarritako baldintzak bete izana ere.<br><br>Ez da inoiz ere janaririk jarriko lurrean bertan eta jendaurrean daudenak behar bezala babestuta egongo dira.<br><br>Txosnetan, ostalaritzako establezimenduen kanpoan eta behin-behineko instalazioetan erabiliko diren edalontzi eta antzekoak erabilera bakarrekoak eta biodegradagarriak edota jarduera jakin baterako espresuki egindako edalontzi berrerabilgarriak izango dira, eta antolatzaileak bermatuko du horien higienea.<br><br>Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legeak xedatutakoaren arabera, 18 urtetik beherakoei ezin izango zaie alkoholdun edaririk edota tabakorik saldu, ez eta eskueran jarri ere. Era berean, antolatzen diren ekitaldietan edari alkoholdunen salmenta badago, 18 urtetik beherakoei saltzea debekaturik dagoela azaltzen dituzten kartelak jarri beharko dira. |

| | |
|---|---|
| ~~11.~~ **artikulua:** ~~ALDEZ AURRETIKO~~ **IKUSKAPENA**:<br><br>1. Instalazioen jarduera hasi eta martxan jarri aurretik, titularrak eta arduradunak behartuta daude kasuan kasu arlo desberdinetan eskudun diren udal teknikarien -edo Udalak izendatutako langile baten- eskutik dagozkion ikuskapen eta kontrol teknikoak izatera.<br><br>2. Aipatutako baldintzak bete gabe ezin izango dira 1. artikuluan zehaztutako jarduerak eta instalazioak martxan jarri, horrela bermatuko baitira jai-barrutiaren segurtasun, sendotasun, osasun, higiene eta apaindura baldintzak, eta baita ziurtatuko ere instalazio eta jarduera horietatik gertu bizi diren auzokoek atsedenerako duten eskubidea. | **13. artikulua: IKUSKAPENA: AURRETIK, BITARTEAN ETA ONDOREN**<br><br>3. Instalazioen jarduera hasi eta martxan jarri aurretik, pertsona edo erakunde titularrak eta arduradunak behartuta daude kasuan kasu arlo desberdinetan eskudun diren udal teknikarien -edo Udalak izendatutako langile baten- eskutik dagozkion ikuskapen eta kontrol teknikoak izatera.<br><br>4. Aipatutako baldintzak bete gabe ezin izango dira 1. artikuluan zehaztutako jarduerak eta instalazioak martxan jarri, horrela bermatuko baitira jai-barrutiaren segurtasun, sendotasun, osasun, higiene eta apaindura baldintzak, eta baita ziurtatuko ere instalazio eta jarduera horietatik gertu bizi diren auzokoek atsedenerako duten eskubidea. |
| ~~12.~~ **artikulua: OSASUN-IKUSKAPENA**<br><br>Eskualdeko Osasun Publikoko Janari eta Albaitaritza Kontrolerako Zerbitzuek egiaztatu ahal izango dute, bai ofizioz bai alde batek hala eskatuta, osasun izaerako araudia betetzen dela. Erakunde eskudunek edo ikuskatzaileek hala eskatuz gero, pertsona fisiko nahiz juridikoak honako honetara behartuta daude:<br><br>— Instalazio, produktu nahiz zerbitzuei buruzko informazio guztia ematera, eta ikuskapena erraztera.<br><br>— Ikuskapenaren arlo zehatzarekin lotuta dagoen dokumentazioaren kopiak ematera.<br><br>— Ikuskapena errazteko bitartekoak jartzera, inolako eragozpenik jarri gabe.<br><br>— Beharrezkoa bada, laginak hartzen uztera. | **14. artikulua: OSASUN-IKUSKAPENA**<br><br>Eskualdeko Osasun Publikoko Janari eta Albaitaritza Kontrolerako Zerbitzuek egiaztatu ahal izango dute, bai ofizioz bai alde batek hala eskatuta, osasun izaerako araudia betetzen dela. Erakunde eskudunek edo ikuskatzaileek hala eskatuz gero, pertsona fisiko nahiz juridikoak honako honetara behartuta daude:<br><br>— Instalazio, produktu nahiz zerbitzuei buruzko informazio guztia ematera, eta ikuskapena erraztera.<br><br>— Ikuskapenaren arlo zehatzarekin lotuta dagoen dokumentazioaren kopiak ematera.<br><br>— Ikuskapena errazteko bitartekoak jartzera, inolako eragozpenik jarri gabe.<br><br>— Beharrezkoa bada, laginak hartzen uztera. |
| ~~13.~~ **artikulua: HERRIKO JAIETAN EDO UDALERRIARENTZAT INTERESGARRIAK DIREN JARDUERETAN JARTZEN DIREN SALMENTA-POSTU IBILTARIAK**<br><br>Eskatutako jaiei edo jarduerei dagokien egunerako, edo egunetarako, balioko du baimenak.<br><br>Tradiziozko erromeria batean ohikoak diren gaiak salduko dira: erroskilak, litxarreriak, gozokiak, globoak eta antzekoak. Debekatuta daude bestelako gaiak, eta Udaltzaingoak konfiskatu ahal izango ditu. Salbuespenez eta nahierara, produktu tradizionalak eta jaiarekin nahiz jarduerarekin zerikusia duten produktuak saltzen utziko da. Kasu horietan guztietan, janariak baimendutako establezimenduetakoak izan beharko dira, eta janariekin batera eraman beharreko merkataritza-dokumentuen bidez justifikatu beharko da hala direla; jakiak eurek egiten badituzte, berriz, osasun-erregistroko zenbakia edo dagokion osasun-baimenaren zenbakia erakutsi beharko dute.<br><br>Udalak esleituko du baimena, postu mota desberdinen artean banaketa homogeneoa egiteko irizpideen arabera. ~~Mota bereko postuetarako eskaeraren sarrera data hartuko da kontuan Instalazioa egiteko momentuan Udaltzaingoak interesatuari~~ jakinaraziko ~~dio~~ eskatzaile bakoitzari zein toki esleitu zaion, ~~eta hori jakin baino lehen esleipendunak ezingo dira dagokien tokian jarri.~~<br><br>Postuek 5 metroko neurri estandarra izango dute. Eskaeran hala jasoarazten bada, inoiz edo behin postu bikoitzak edo beste neurri batekoak baimendu ahal izango dira. | **15. artikulua: HERRIKO JAIETAN EDO UDALERRIARENTZAT INTERESGARRIAK DIREN JARDUERETAN JARTZEN DIREN SALMENTA-POSTU IBILTARIAK**<br><br>Eskatutako jaiei edo jarduerei dagokien egunerako, edo egunetarako, balioko du baimenak.<br><br>Tradiziozko erromeria batean ohikoak diren gaiak salduko dira: erroskilak, litxarreriak, gozokiak, globoak eta antzekoak. Debekatuta daude bestelako gaiak, eta Udaltzaingoak konfiskatu ahal izango ditu. Salbuespenez eta nahierara, produktu tradizionalak eta jaiarekin nahiz jarduerarekin zerikusia duten produktuak saltzen utziko da. Kasu horietan guztietan, janariak baimendutako establezimenduetakoak izan beharko dira, eta janariekin batera eraman beharreko merkataritza-dokumentuen bidez justifikatu beharko da hala direla; jakiak eurek egiten badituzte, berriz, osasun-erregistroko zenbakia edo dagokion osasun-baimenaren zenbakia erakutsi beharko dute.<br><br>Udalak esleituko du baimena, postu mota desberdinen artean banaketa homogeneoa egiteko irizpideen arabera Mota bereko postuak jartzeko esleipena zozketa bidez edo sarbide-berdintasuna bermatzen duen beste modu baten bidez egingo da). Aldez aurretik jakinaraziko zaio pertsona edo erakunde eskatzaile bakoitzari zein toki esleitu zaion eta egunean bertan Udaltzaingoak egiaztatuko du esleipenduna esleitutako tokian jarri dela.<br><br>Postuek 5 metroko neurri estandarra izango dute. Eskaeran hala jasoarazten bada, inoiz edo behin postu bikoitzak edo beste neurri batekoak baimendu ahal izango dira. |

| | |
|---|---|
| Zarauzko Udalari dagokio "udalerriarentzat interesgarria den jaia nahiz jarduera" ba ote den erabakitzea. | Zarauzko Udalari dagokio "udalerriarentzat interesgarria den jaia nahiz jarduera" ba ote den erabakitzea. |
| ~~**14. artikulua: OSTALARITZAKO ESTABLEZIMENDUEN KANPOKO SALMAHAIAK**~~<br><br>~~San Pelaioko festak, Euskal Jaiak eta auzoetako festak edo bestelako ekitaldiak ospatzen diren zonako establezimenduek eskatu ahal izango dute baimena, aplikagarri zaizkien araudi guztiak betetzen dituztela eta Udalarekin dituzten zerga-betebeharrak egunean daudela egiaztatzen badute, eta segurtasuneko eta larrialdietako zerbitzu publiko guztien irisgarritasuna bermatzen badute, betiere.~~<br><br>~~Salmahaiek okupatuko duten gunea pribatua izanez gero, orduan jabearen baimena aurkeztu beharko da.~~<br><br>~~Instalazio hauetan erabiliko diren edalontziak erabilera bakarrekoak eta biodegradagarriak edo berrerabilgarriak izango dira eta antolatzaileak bermatuko du horien higienea.~~<br><br>~~Establezimenduko zerbitzu higieniko-sanitarioak jendearentzat irekita eta garbi egon beharko dira eta, beharrezkoa izango balitz, garbiketa areagotu egin beharko litzateke.~~<br><br>~~Erabakitako fidantza jarri beharko dute eta bide publikoa okupatzeagatik dagokion tasa ordaindu beharko dute.~~<br><br>~~Bide publikoa garbitu beharko dute, erabili aurretik zegoen bezalaxe uzteko.~~ | |
| ~~**15.**~~ **artikulua: ARTISAUTZAKO PRODUKTUEN SALMENTA-POSTUAK**<br><br>Artea eta artisautza sustatzeko asmoz, artisautzako produktuak saltzeko, ~~gune bat egokituko da (Ipar kalea edo Udalak erabakitzen duen besteren bat).~~. Kasu horretan, lurzoru publikoa okupatzeko. Gune horretan dagoen lekuaren arabera erabakiko da zenbat lizentzia eman.<br><br>Herriko artisauak sustatze aldera, eskaera eguna baino hiru hilabete lehenagotik Zarauzko udalerrian bizi direla egiaztatzen duten artistek eta artisauek eskatu ahal izango dute baimena. Leku arazorik ez dagoen bitartean, baldintza hori bete gabe eman ahal izango dira lizentziak. Leku arazorik gertatuz gero, orduan Zarauzko artistek izango dute izendatutako tokia okupatzeko lehentasuna.<br><br>Salgaiak artistek eurek egindako arte-lanak eta artisau-lanak baino ez dira izango. Berariaz debekatuta dago produktuak berriz saltzea. Bestelako produktuak saltzea lizentzia baliogabetzeko besteko arrazoia izango da.<br><br>Baimendu gabeko lehengai eta/edo produktu landuekin egindako eta behar bezala identifikatu gabeko (etiketak, fakturak edo beste agiri batzuk) artisau-lanak merkaturatzea berariaz debekatuta dago. Halaber, dagokion titulaziorik edo osasun-erakunde eskudunak aitortutako baimenik gabe osasunarentzat arriskugarri izan daitezkeen jarduerak egitea berariaz debekatuta dago. | **16. artikulua: ARTISAUTZAKO PRODUKTUEN SALMENTA-POSTUAK**<br><br>Artea eta artisautza sustatzeko asmoz, artisautzako produktuak saltzeko, Udalak guneak zehaztuko ditu. Kasu horretan, lurzoru publikoa doan okupatzeko baimena emango da. Gune horretan dagoen lekuaren arabera erabakiko da zenbat lizentzia eman.<br><br>Herriko artisauak sustatze aldera, eskaera eguna baino hiru hilabete lehenagotik Zarauzko udalerrian bizi direla egiaztatzen duten artistek eta artisauek eskatu ahal izango dute baimena. Leku arazorik ez dagoen bitartean, baldintza hori bete gabe eman ahal izango dira lizentziak. Leku arazorik gertatuz gero, orduan Zarauzko artistek izango dute izendatutako tokia okupatzeko lehentasuna.<br><br>Salgaiak artistek eurek egindako arte-lanak eta artisau-lanak baino ez dira izango. Berariaz debekatuta dago produktuak berriz saltzea. Bestelako produktuak saltzea lizentzia baliogabetzeko besteko arrazoia izango da.<br><br>Baimendu gabeko lehengai eta/edo produktu landuekin egindako eta behar bezala identifikatu gabeko (etiketak, fakturak edo beste agiri batzuk) artisau-lanak merkaturatzea berariaz debekatuta dago. Halaber, dagokion titulaziorik edo osasun-erakunde eskudunak aitortutako baimenik gabe osasunarentzat arriskugarri izan daitezkeen jarduerak egitea berariaz debekatuta dago. |
| ~~**16.**~~ **artikulua: AZOKAK, ERAKUSKETAK ETA ANTZEKOAK (ANTOLAKETA BERAREN MENPE ~~DAUDEN KASETEN ZENBATEKOA)~~**<br><br>Izaera orokorreko baldintzez gain, eskaerarekin batera honako hauek aurkeztu beharko dituzte: postuen zerrenda erakutsi edo merkaturatuko diren produktu motak, eta jarduera egoki garatzeko lurzoru publikoa okupatzeko zenbat metro karratu eskatzen den. | **17. artikulua: AZOKAK, ERAKUSKETAK ETA ANTZEKOAK (ANTOLAKETA BERAREN MENPE POSTU BAT BAINO GEHIAGO DAGOENEAN)**<br><br>Izaera orokorreko baldintzez gain, eskaerarekin batera honako hauek aurkeztu beharko dituzte: postuen zerrenda eta bakoitzaren arduradunak, erakutsi edo merkaturatuko diren produktu motak, eta jarduera egoki garatzeko lurzoru publikoa okupatzeko zenbat metro karratu eskatzen den eta postu bakoitzaren zein eremu osoaren plano bat.<br><br>Postu bakoitzak zein eremu osoak bermatu beharko ditu indarrean |

<table>
<tr><td></td><td>dauden segurtasun eta higiene baldintzak, eta horretarako hartu beharreko neurriak aurkeztuko zaizkio Udalari jarduera egin aurretik.</td></tr>
<tr><td>

~~17.~~ **artikulua: <u>TXOSNAK</u>**

1.- ESKAERAK ETA ESLEIPENA

- Beren jarduera Zarauzko udalerrian garatzen duten eta irabazi-asmorik ez duten kultur, kirol zein gizarte izaerako erakundeek, taldeek edo elkarteek eskatu ahal izango dute txosnak jartzeko baimena, legalki eratuta egonez gero eta dagokion IFK edukiz gero. Salbuespenez, baldintza horiek betetzen ez dituzten erakundeak onartu ahal izango dira, betiere zeregin sozial bat betetzen dutela ulertzen bada.
- ~~Talde edo elkarte eskatzaileek beren jardueraren urteko programa eta dagokion aurrekontua eduki beharko dituzte.~~
- Txosna-barrutiaren kokalekuaren eta txosnen tamainaren arabera erabakiko da gehienez ere zenbat txosna jarri. Leku arazoagatik zenbatekoa mugatuz gero, aldez aurretik Udalak baimena ematea erabakitako eskatzaileen artean jai desberdinetarako banaketa homogeneo bat egin beharko da urtean zehar. Txosna-barrutian aniztasuna bermatzeko, ahaleginak egingo dira txosna-taldea osatzen duten arlo desberdinak (kultura, kirola eta gizartea) aldi bakoitzean egoki ordezkatuta egon daitezen.
- ~~Talde edo erakunde bakoitzak urtearen lehen hiruhilekoan aurkeztu ahal izango du urtean zehar txosnaren bat jartzeko duen asmoa.~~
- Proposamen horien iraupena urte naturalekoa izango da, eta urtero berriztatuko da. ~~udalerriko kultura, kirol eta gizarte mailako talde guztiei deialdia eginda.~~
- Udalak erabakiko du ~~Kultura Batzordeak hala proposatuta,~~ aurkeztutako eskabideen esleipena eta gai honen inguruko beste edozein kontu.

2.- INSTALAZIO ETA FUNTZIONAMENDU BALDINTZAK

a) Baldintza teknikoak, segurtasunekoak eta higieniko-sanitarioak, araudi honetan eta ~~4/1995~~ Legean oro har deskribatutakoak izango dira.
b) Lizentzian zehaztuko dira txosnak irekitzeko tokia, egunak eta ordutegia.

</td><td>

18. **artikulua: <u>TXOSNAK</u>**

1.- ESKAERAK ETA ESLEIPENA

- Beren jarduera Zarauzko udalerrian garatzen duten eta irabazi-asmorik ez duten kultur, kirol zein gizarte izaerako erakundeek, taldeek edo elkarteek eskatu ahal izango dute txosnak jartzeko baimena, legalki eratuta egonez gero eta dagokion IFK edukiz gero. Salbuespenez, baldintza horiek betetzen ez dituzten erakundeak onartu ahal izango dira, betiere zeregin sozial bat betetzen dutela ulertzen bada.
- Txosnak Udalak aldez aurretik ezarritako lekuetan soilik instalatu ahal izango dira. Txosna-barrutiaren kokalekuaren eta txosnen tamainaren arabera erabakiko da gehienez ere zenbat txosna jarri. Leku arazoagatik zenbatekoa mugatuz gero, aldez aurretik Udalak baimena ematea erabakitako eskatzaileen artean jai desberdinetarako banaketa homogeneo bat egin beharko da urtean zehar. Txosna-barrutian aniztasuna bermatzeko, ahaleginak egingo dira txosna-taldea osatzen duten arlo desberdinak (kultura, kirola eta gizartea) aldi bakoitzean egoki ordezkatuta egon daitezen.
- Proposamen horien iraupena urte naturalekoa izango da, eta urtero berriztatuko da.
- Udalak erabakiko du aurkeztutako eskabideen esleipena eta gai honen inguruko beste edozein kontu.

2.- INSTALAZIO ETA FUNTZIONAMENDU BALDINTZAK

a) Baldintza teknikoak, segurtasunekoak eta higieniko-sanitarioak, araudi honetan eta 10/2015 Legean oro har deskribatutakoak izango dira.
b) Lizentzian zehaztuko dira txosnak irekitzeko tokia, egunak eta ordutegia.
c) Txosnetarako instalazioek behar diren baldintza teknikoak bete beharko dituzte pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko eta hirugarrenei eragozpenik ez sortzeko, kasu bakoitzerako eska daitezkeen araudien arabera, batez ere egituren sendotasun- eta funtzionamendu-baldintzei, suteen aurkako prebentzio- eta babes-neurriei eta osasungarritasun- eta higiene-baldintzei dagokienez.
d) 18 urtetik beherakoei ezin izango zaie alkoholdun edaririk saldu.
e) Edari alkoholduna saltzea baimenduta dagoen establezimendu edo jarduera orotan, kartelak jarri beharko dira toki agerian, adingabeei alkohola saltzea debekatuta dagoela adierazteko.
f) Alkoholik gabeko edari salmenta sustatuko da.
g) 18 urtetik gorako pertsonak egongo dira alkoholdun edariak zerbitzatzen.

</td></tr>
<tr><td>~~18.~~ artikulua: <u>BARRAKAK ETA ZIRKOAK</u></td><td>19. artikulua: <u>BARRAKAK ETA ZIRKOAK</u></td></tr>
</table>

| | |
|---|---|
| Izaera orokorreko baldintzez gainera, eskaerarekin batera ondokoa aurkeztu beharko dute: proposatutako atrakzioak (ahal dela argazkia edo beste edozein irudi), horien neurriak eta martxan jartzeko zenbat leku publiko behar duten. Etxebizitza-karabanak ~~zirkoko barrutian~~ kokatuko dira, ~~Gainerako kasuetan kokapenak udal zerbitzuen oniritzia eduki beharko du.~~<br><br>Izaera orokorreko araudiak dioenaz gain, barrakek eta zirkoek instalazio proiektua aurkeztu beharko dute, teknikari eskudun batek sinatua eta dagokion Elkargoak ikus-onetsia. | Izaera orokorreko baldintzez gainera, eskaerarekin batera ondokoa aurkeztu beharko dute: proposatutako atrakzioak (ahal dela argazkia edo beste edozein irudi), horien neurriak eta martxan jartzeko zenbat leku publiko behar duten. Horiek guztiak adostutako espazioan jartzeko planoa aurkeztu beharko da, eta kokapen planoari Udalak oniritzia eman beharko dio. Etxebizitza-karabanak Udalak erabakitzen duen lekuan kokatuko dira, eta indarrean dagoen bide okupazioaren tasa ordaindu beharko dute. Tasen salbuespena egin liteke proposamenak Udalarentzat interes handia duen kasuetan.<br><br>Zarauzko Udalak dagokion prozeduraren bidez esleituko ditu barraka edo atrakzioetarako baimenak, eta adjudikazio horretatik kanpo Udalak ez du horiek jartzeko baimenik emango.<br><br>Izaera orokorreko araudiak dioenaz gain, barrakek eta zirkoek instalazio proiektua aurkeztu beharko dute, teknikari eskudun batek sinatua eta dagokion Elkargoak ikus-onetsia. Etxebizitza-karabanen kasuan horiek jartzeko instalazioak, ura eta argia eskaera egiten duen pertsona edo erakundearen kontura izango da, baita bertako kontsumoak ere.<br><br>Berariaz debekatzen dira animaliak erabiltzen dituzten azokak eta zirkuak. |
| **~~19.~~ artikulua: <u>MUSIKA EKITALDIAK ETA FORMATU TXIKIKO IKUSKIZUNAK BIDE ETA GUNE PUBLIKOETAN</u>**<br><br>Izaera orokorreko baldintzez gain, honakoak bete beharko dira:<br><br>1. Bide publikoan musika jotzeko eta formatu txikiko ikuskizunak egiteko, Udalaren lizentzia beharrezkoa izango da. Hau prekarioan emango da eta herrian dauden musikagile eta artista kopuruaren, erabiltzen dituzten musika tresnen eta urtaroaren arabera nahierara emango da. Lizentziaren titularrak aldean eraman beharko du lizentzia eta Udaltzainen eskura egongo da.<br><br>Aldi berean jarduera berdinetarako gehienez zenbat lizentzia emango den ~~Kultura Batzordeak~~ Udalak erabakiko du, eta jarduerak baimenduko dira baldin eta araudi erregulatzaile honetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte**.** Eskaerak egin diren ordena zehatzaren arabera emango dira lizentziak, eta herriak duen hizkuntza errealitatea errespetatuz. Eskaera gehiegi egonez gero edo baimendutako jardueren hizkuntza erabilerak Zarauzko egoera soziolinguistikoan inpaktu kaltegarria izan dezakeela ikusiz gero, baimena ukatu egingo zaie. ~~Eskaera gehiagorik egonez gero, baimena ukatu egingo zaie.~~<br><br>Lizentzia gehienera 3 egunetarako emango da. Horiek igaro eta gero berriro eskatu beharko da, eta Udalaren ~~Udaltzaingoaren~~ esku geratuko da berritzea ala ez, ikuskizun motaren, jokabidearen eta udalerriarentzat interesgarriak izan daitezkeen gainerako gorabeheren arabera.<br><br>Eskaeran jarduera non egin nahi den zehaztuko da. ~~Udaltzaingoak~~ lekuak esleituko ditu, lehentasunezkoak direnak pertsona edo erakunde eskatzaileen artean txandakatzeko moduan.<br><br>2. Jardueran lizentziarik eskatu gabe arituz gero, Udaltzainek jarduleari eskatuko diote ~~Udaltzaingora~~ joateko lizentzia eskatzera, baldintza hori bete ezean ezin baita kale-ikuskizunean jardun.<br><br>3. Jarduera ~~ondoko~~ lekuetan egingo da:<br><br>~~4. Kale Nagusian, Torre Luzearen aurrean~~ | **20. artikulua: <u>MUSIKA EKITALDIAK ETA FORMATU TXIKIKO IKUSKIZUNAK BIDE ETA GUNE PUBLIKOETAN</u>**<br><br>Izaera orokorreko baldintzez gain, honakoak bete beharko dira:<br><br>- Bide publikoan musika jotzeko eta formatu txikiko ikuskizunak egiteko, Udalaren lizentzia beharrezkoa izango da. Hau prekarioan emango da eta herrian dauden musikagile eta artista kopuruaren, erabiltzen dituzten musika tresnen eta urtaroaren arabera nahierara emango da. Lizentziaren titularrak aldean eraman beharko du lizentzia eta Udaltzainen eskura egongo da.<br><br>Aldi berean jarduera berdinetarako gehienez zenbat lizentzia emango den Udalak erabakiko du, eta jarduerak baimenduko dira baldin eta araudi erregulatzaile honetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte**.** Eskaerak egin diren ordena zehatzaren arabera emango dira lizentziak, eta herriak duen hizkuntza errealitatea errespetatuz. Eskaera gehiegi egonez gero edo baimendutako jardueren hizkuntza erabilerak Zarauzko egoera soziolinguistikoan inpaktu kaltegarria izan dezakeela ikusiz gero, baimena ukatu egingo zaie.<br><br>Lizentzia gehienera 3 egunetarako emango da. Horiek igaro eta gero berriro eskatu beharko da, eta Udalaren esku geratuko da berritzea ala ez, ikuskizun motaren, jokabidearen eta udalerriarentzat interesgarriak izan daitezkeen gainerako gorabeheren arabera.<br><br>Eskaeran jarduera non egin nahi den zehaztuko da. Udalak lekuak esleituko ditu, lehentasunezkoak direnak pertsona edo erakunde eskatzaileen artean txandakatzeko moduan.<br><br>- Jardueran lizentziarik eskatu gabe arituz gero, Udaltzainek jarduleari eskatuko diote Udalera joateko lizentzia eskatzera, baldintza hori bete ezean ezin baita kale-ikuskizunean jardun.<br><br>- Jarduera Alkatetzak ezarritako lekuetan egingo da:<br><br>Udalak aurrekomunikazioen bidez baimenduko ditu kaleko |

<table>
<tr>
<td>
~~5. Musika plaza~~<br>
~~6. Lege Zaharren enparantza~~<br>
~~7. Itsasertzeko pasealekua (Duke-Enea, Galtxagorri aurrea edo Borghetto)~~<br>
~~8. Barren plazan~~<br>
~~9. Munoa~~<br>
~~10. Eska daitezkeen beste leku batzuk (auzoetako festak...)~~<br><br>
d) Musikaren ordutegia honako hau izango da:<br><br>
~~Udan: goizeko 11:00etatik 15:00etara eta arratsaldez 19:00tik 23:00etara (ekainaren 15etik irailaren 15era)~~<br>
~~Neguan: goizeko 11:00etatik 15:00etara eta arratsaldez 19:00tik 22:00etara (irailaren 16tik ekainaren 14ra).~~<br><br>
Nolanahi ere, Udalaren ustez udalerriarentzat interesgarriak diren jaiak ospatzen diren egunetan edo beste ekitaldi berezi batzuetan, kasu bakoitzerako ordutegia zehaztuko da, eta hori izango da salbuespen bakarra.<br><br>
Etxebizitzak gertu dituzten plaza edo kaleetan egiten diren musika emanaldiek, antzerkiek edo beste edozein ikuskizunek, baldin soinua anplifikatzeko sistemak erabiltzen badituzte, ~~antolatzailearen kontura soinua mugatzeko tresna bat eduki beharko dute, lizentzian ezarritako soinu-muga ez gainditzeko~~ eta, gainera~~, askora jota,,~~ atal honetan adierazitako orduetan bukatu beharko dute, bizilagunei atseden hartzen uzteko.<br><br>
e) Jardueraren erantzuleek soinu-materiala baino ezingo dute saldu (~~kaseteak~~, diskoak, disko trinkoak, etab.), eta horiek ere diharduten musikarien edo taldeen grabazioak baldin badira.<br><br>
f) Era berean, Udaltzaingoak emanaldiak geldiarazteko ahalmena izango du, konturatzen bada arau hauetakoren bat ez dela betetzen, edo egiaztatzen bada jarduera horiek debekatuta dauden beste jarduera batzuk estaltzeko erabiltzen direla, esate baterako eskean ibiltzeko, edo eskean ibiltzeak baino lehentasun handiagoa badu.<br><br>
g) Dena den, ~~Alkatetzak, Kultura Departamentuak edo Udaltzaingoak~~ ematen ~~dituzten~~ aginduak bete beharko dira.
</td>
<td>
musika ekitaldi edo formatu txikiko ikuskizunak.<br><br>
Era berean, aurrekomunikazio bidez, bide publikoa okupatzen duten formatu txikiko beste jarduera mota batzuk baimendu ahal izango dira (establezimenduen inaugurazioak eta antzekoak).<br><br>
Udalak antolatutako edo babestutako ekitaldiek lehentasuna dute kokapena aukeratzeko garaian. Ezingo da baimendu jarduera bat Udalak leku eta ordu berean beste ekitaldiren bat antolatuta badauka.<br><br>
- Musikaren ordutegia honako hau izango da:<br><br>
Goizeko 11:00etatik 14:00etara eta arratsaldez 19:00etatik 22:00etara<br><br>
Nolanahi ere, Udalaren ustez udalerriarentzat interesgarriak diren jaiak ospatzen diren egunetan edo beste ekitaldi berezi batzuetan, kasu bakoitzerako ordutegia zehaztuko da, eta hori izango da salbuespen bakarra.<br><br>
Etxebizitzak gertu dituzten plaza edo kaleetan egiten diren musika emanaldiek, antzerkiek edo beste edozein ikuskizunek, baldin soinua anplifikatzeko sistemak erabiltzen badituzte, ezingo dute ordenantza honetan ezarritako soinu-muga gainditu, eta, gainera~~,~~ gehienez, atal honetan adierazitako orduetan bukatu beharko dute, bizilagunei atseden hartzen uzteko.<br><br>
- Jardueraren erantzuleek soinu-materiala baino ezingo dute saldu ( diskoak, disko trinkoak, etab.), eta horiek ere diharduten musikarien edo taldeen grabazioak baldin badira.<br><br>
- Era berean, Udaltzaingoak emanaldiak geldiarazteko ahalmena izango du, konturatzen bada arau hauetakoren bat ez dela betetzen, edo egiaztatzen bada jarduera horiek debekatuta dauden beste jarduera batzuk estaltzeko erabiltzen direla, esate baterako eskean ibiltzeko, edo eskean ibiltzeak ikuskizunak baino lehentasun handiagoa badu.<br><br>
- Dena den, Udalak ematen dituen aginduak bete beharko dira.<br><br>
- Bide eta eremu publikoetako musika-emanaldiek eta ikuskizunek ez dute aseguru-polizarik aurkeztu beharko, ez eta jarduera garatzeko fidantza jarri ere, ikuskizunaren izaerak kontrakoa eskatzen duenean izan ezik.
</td>
</tr>
<tr>
<td></td>
<td>
**21. artikulua. INFORMAZIO- ETA ESKAERA-MAHAIAK, BILKETAK ETA HELBURU SOLIDARIOA DUTEN BESTE JARDUERA BATZUK.**<br><br>
1.- Jabari publikoa okupatzen duten informazio- eta eskaera-mahaiak gobernuz kanpoko erakundeei edo irabazi-asmorik gabeko gizarte-erakundeei baino ez zaizkie baimenduko.<br><br>
2.- Bide publikoan baimentzen diren bilketek ongintzazko helburua izan beharko dute, herritarren esangura bereziko eta interes orokorreko kausetarako.<br><br>
3.- Mahai bat eta 10 m2-ko azalera gainditzen ez duten beste instalazio osagarri batzuk erabili ahal izango dituzte.<br><br>
4.- Udalak aurrekomunikazio bidez baimenduko ditu artikulu honetan aurreikusitako jarduerak, eta, artikulu honetan aurreikusi ez den guztian, aurreko artikuluan jasotako aurreikuspenak aplikatuko dira bateragarriak diren bide eta eremu publikoetako musika-emanaldi eta
</td>
</tr>
</table>

| | |
|---|---|
| | formatu txikiko emanaldietarako. |
| ~~20.~~ **artikulua: ~~INSTALAZIOAK IREKI ETA IXTEKO~~ ORDUTEGIAK**<br><br>~~Kasu bakoitzean erabakiko da ireki eta ixteko ordutegia, instalazio motaren arabera. Oinarritzat hartuko dira bai jarduerari dagokion sektorearentzat arauz ezarrita dauden ordutegiak, aldi berean beste ekitaldi edo jaialdi batzuk dauden etab.~~ | **22. artikulua: ORDUTEGIAK**<br><br>Ordenantzan jasotzen den ordutegia aplikatuko da, baldin eta horrek talkarik egiten ez badu jarduerari dagokion sektorearentzat arauz ezarrita dauden ordutegiarekin, aldi berean beste ekitaldi edo jaialdi batzuekin, eta pandemia edo gisa horretako beste arau edo dekreturekin. |
| ~~21.~~ **artikulua: ZAINTZA ETA SEGURTASUNEKO ZERBITZUAK**<br><br>Horiek jartzea exijituko da jendetza biltzea aurreikusten denean. Berariaz salbuesten ez bada, eskatzaileen kontura izango dira instalazioen zaintza eta segurtasuneko gastuak. | **23. artikulua: ZAINTZA ETA SEGURTASUNEKO ZERBITZUAK**<br><br>Horiek jartzea exijituko da jendetza biltzea aurreikusten denean. Berariaz salbuesten ez bada, pertsona edo erakunde eskatzaileen kontura izango dira instalazioen zaintza eta segurtasuneko gastuak. |
| ~~22.~~ **artikulua: BIDE PUBLIKOAREN GARBIKETA ETA ZAINTZA**<br><br>Hondakin eta zaborrak Udalak horretarako jartzen dituen ontzietan bota beharko dira.<br><br>Ostalaritza gremiokoek kanpoan jartzen dituzten salmahaiek, txosnek eta etengabe hondakinak (ontziak, zorroak...) sortzen dituzten beste instalazio guztiek zakarrontziak jarri beharko dituzte instalazioaren alde bietan eta hauek aldian-aldian hustu, inguruko bide publikoa garbi egon dadin.<br><br>Garbiketa eta zabor bilketa zerbitzuez gain, antolatzaileak jai-barrutia jendearentzat behar bezain garbi eta apain edukitzeaz arduratuko dira, eta eguna amaitu ondoren instalazioaren barrualdea eta kanpoko ingurunea garbituko dituzte.<br><br>Eskatzaileek bide publikoa eta hiri-altzariak zaindu beharko dituzte, eta bere jardueraren ondorioz sor daitezkeen kalteak ordaindu beharko dituzte.<br><br>Antolatzaileek beren ibilgailuak jai-barrutitik kanpora utzi beharko dituzte, Udaltzaingoak horretarako adierazitako lekuan.<br><br>Guztiz debekatuta dago helburu horretarako ez den lekuetan materiala biltzea. | **24. artikulua: BIDE PUBLIKOAREN GARBIKETA ETA ZAINTZA**<br><br>Hondakin eta zaborrak Udalak horretarako jartzen dituen ontzietan bota beharko dira.<br><br>Ostalaritza gremiokoek kanpoan jartzen dituzten salmahaiek, txosnek eta etengabe hondakinak (ontziak, zorroak...) sortzen dituzten beste instalazio guztiek zakarrontziak jarri beharko dituzte instalazioaren alde bietan eta hauek aldian-aldian hustu, inguruko bide publikoa garbi egon dadin.<br><br>Garbiketa eta zabor bilketa zerbitzuez gain, antolatzaileak jai-barrutia jendearentzat behar bezain garbi eta apain edukitzeaz arduratuko dira, eta eguna amaitu ondoren instalazioaren barrualdea eta kanpoko ingurunea garbituko dituzte.<br><br>Pertsona edo erakunde eskatzaileek bide publikoa eta hiri-altzariak zaindu beharko dituzte, eta bere jardueraren ondorioz sor daitezkeen kalteak ordaindu beharko dituzte.<br><br>Pertsona edo erakunde antolatzaileek beren ibilgailuak jai-barrutitik kanpora utzi beharko dituzte, Udaltzaingoak horretarako adierazitako lekuan.<br><br>Guztiz debekatuta dago helburu horretarako ez den lekuetan materiala biltzea. |
| ~~**23. artikulua: MEGAFONIA**~~<br><br>~~Araudi honen xede diren instalazioetan megafonia-sistemak edo musika-aparatuak jartzeko ahalmena lizentzian eman beharko da. Barruti batean instalazio bat baino gehiago badago, ekipo bakar bat jarri ahalko da denentzat, eta bertan bozgorailuen bolumen-mugatzaile bat jarri beharko da, erabakitzen diren dezibelioetara zigilatuta.~~ | |
| ~~**24. artikulua: PUBLIZITATEA**~~<br><br>~~Euskaraz egin beharko da, iragarleek aukeratzen dituzten hizkuntzez gainera. Zuzen idatziko dela bermatzeko, inprimatu edo jarri baino lehen Udaletxean aurkeztu beharko da testu-zirriborroa.~~<br><br>~~Zarauzko kaleetan horretara zuzendutako tokietan baino ez da jarriko. Taula mugikorrak jartzeko baimena ere emango da, eta azoka edo ekitaldia amaitzean kendu egin beharko dira.~~ | |
| ~~25.~~ **artikulua: ZEHAPEN-ARAUBIDEA**<br><br>Udalak zehatzeko duen ahalmena ondokoetan xedatutakoak arautuko du: eta lege hori garatzeko araudia, eta 2/1998 Legea, otsailaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzkoa, edota Legebiltzarrak onartutako ~~4/1995~~ Legean | **25. artikulua: ZEHAPEN-ARAUBIDEA**<br><br>Udalak zehatzeko duen ahalmena ondokoetan xedatutakoak arautuko du: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena eta lege hori garatzeko araudia, eta 2/1998 |

| | |
|---|---|
| (jendaurreko ikuskizunei eta jolas jarduerei buruzkoa) jasotako jarduerei, hala badagokio, lege horretan zehapen-prozedurarako aurreikusten diren arauak aplikatu beharko zaizkie. | Legea, otsailaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzkoa, edota horiek ordezkatu edo aldatzen dituztenak edo ondorengo direnak.<br><br>Legebiltzarrak onartutako 10/2015 Legean (jendaurreko ikuskizunei eta jolas jarduerei buruzkoa) jasotako jarduerei, hala badagokio, lege horretan zehapen-prozedurarako aurreikusten diren arauak aplikatu beharko zaizkie. |
| ~~26.~~ **artikulua: <u>ARAU-HAUSTEAK</u>**<br><br>Jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren alorreko arau-hauste administratiboak ~~azaroaren 10eko 4/1995~~ Legeak, jendaurreko ikuskizunei eta jolas jarduerei buruzkoak, ~~(EHAA 230, 1995-12-1),~~ xedatutakoaren arabera sailkatuko dira. | **26. artikulua: <u>ARAU-HAUSTEAK</u>**<br><br>Jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren alorreko arau-hauste administratiboak abenduaren 13ko 10/2015 Legeak, jendaurreko ikuskizunei eta jolas jarduerei buruzkoak, xedatutakoaren arabera sailkatuko dira.<br><br>Hala ere, ordenantza honen 5. artikuluan jasotako baldintzak ez badira betetzen, baliteke Udalak pertsona edo erakunde berak aurrerago egindako eskaerak baldintzatu edo ukatzea. |
| ~~27.~~ **artikulua: <u>ZIGORRAK</u>**<br><br>Jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren alorreko zigorrak ~~azaroaren 10eko 4/1995~~ Legeak, jendaurreko ikuskizunei eta jolas jarduerei buruzkoak (EHAA ~~230, 1995-12-1~~), kategoria bakoitzerako xedatutakoak izango dira. | **27. artikulua: <u>ZIGORRAK</u>**<br><br>Jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren alorreko zigorrak abenduaren 13ko 10/2015 Legeak, jendaurreko ikuskizunei eta jolas jarduerei buruzkoak (EHAA 2016/33, 2016-01-07), kategoria bakoitzerako xedatutakoak izango dira. |
| ~~28.~~ **28. artikulua: <u>ZIGORRAK ZEHAZTEKO MODUA</u>**<br><br>Jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren alorreko zigorrak zehazteko modua ~~azaroaren 10eko 4/1995~~ abenduaren 13ko 10/2015 Legeak, jendaurreko ikuskizunei eta jolas jarduerei buruzkoak (EHAA ~~230, 1995-12-1~~ 2016/33, 2016-01-07), xedatutakoak izango dira. | ~~28.~~ **28. artikulua: <u>ZIGORRAK ZEHAZTEKO MODUA</u>**<br><br>Jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren alorreko zigorrak zehazteko modua ~~azaroaren 10eko 4/1995~~ abenduaren 13ko 10/2015 Legeak, jendaurreko ikuskizunei eta jolas jarduerei buruzkoak (EHAA ~~230, 1995-12-1~~ 2016/33, 2016-01-07), xedatutakoak izango dira. |
| ~~29.~~ **artikulua: <u>ERANTZULEAK</u>**<br><br>Jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren alorreko zigorren erantzuleak ~~azaroaren 10eko 4/1995~~ Legeak, jendaurreko ikuskizunei eta jolas jarduerei buruzkoak (EHAA ~~230, 1995-12-1~~), adierazitakoak izango dira.<br><br>~~**30. 29. artikulua: ALDI BATERAKO XEDAPENA**~~<br><br>~~Indargabetuta geratzen da bide eta zona publikoetako musika eta ikuskizunak arautzen zituen bandoa.~~ | **29. artikulua: <u>PERTSONA EDO ERAKUNDE</u> <u>ERANTZULEAK</u>**<br><br>Jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren alorreko zigorren pertsona edo erakunde erantzuleak abenduaren 13ko 10/2015 Legeak, jendaurreko ikuskizunei eta jolas jarduerei buruzkoak (EHAA 2016/33, 2016-01-07), adierazitakoak izango dira. |
| **<u>AZKEN XEDAPEN INDARGABETZAILEA</u>**<br><br>Udalaren arau edo xedapenak indargabetuta geratuko dira Ordenantza honetan xedatutakoaren kontrakoa esaten duenari dagokionez, eta berariaz honako hauek:<br><br>1) Ekitaldi publikoak, herriko jaiak edo beste ekitaldi publikoak direla eta instalazio edo beste egitura mugikor, behin-behineko edo desmuntagarrietan egiten diren ekitaldi publikoak, jolas jarduerak eta salmenta arautzeko udal ordenantza (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala 99. zenbakia, 1997ko maiatzaren 28koa, eta 151. zenbakia, 2001eko abuztuaren 8koa).<br>2) Alkatetzaren bandoa, kale-musika eta ikuskizunei buruzkoa, 1996ko apirilaren 15ekoa.<br>3) Alkatetzaren bandoa, bide eta zona publikoetako musika eta ikuskizunei buruzkoa.~~, 2005eko uztailaren 8koa.~~<br><br>~~**EGINBIDEA.-** Jasoarazteko Ordenantza hau, hasierako izaeraz, 2009ko apirilaren 29an egindako osoko bilkuran onartu zuela Udalbatzarrak.~~<br><br>~~Zarautzen, 2009ko apirilaren 30a~~<br>~~Idazkaria~~ | **<u>AZKEN XEDAPEN INDARGABETZAILEA</u>**<br><br>Udalaren arau edo xedapenak indargabetuta geratuko dira Ordenantza honetan xedatutakoaren kontrakoa esaten duenari dagokionez, eta berariaz honako hauek:<br><br>1) Ekitaldi publikoak, herriko jaiak edo beste ekitaldi publikoak direla eta instalazio edo beste egitura mugikor, behin-behineko edo desmuntagarrietan egiten diren ekitaldi publikoak, jolas jarduerak eta salmenta arautzeko udal ordenantza (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala 99. zenbakia, 1997ko maiatzaren 28koa, eta 151. zenbakia, 2001eko abuztuaren 8koa).<br>2) Alkatetzaren bandoa, kale-musika eta ikuskizunei buruzkoa, 1996ko apirilaren 15ekoa.<br>3) Alkatetzaren bandoa, bide eta zona publikoetako musika eta ikuskizunei buruzkoa. |

| | |
|---|---|
| **EGINBIDEA.**- Jasoarazteko Ordenantza hau, behin betiko izaeraz, 2009ko uztailaren 29an egindako osoko bilkuran onartu zuela Udalbatzarrak.<br><br>Zarautzen, 2009ko uztailaren 30a<br>Idazkaria<br><br>**EGINBIDEA**.- Jasoarazteko, Ordenantza honen testu osoa 2009ko abuztuaren 17ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (153 zk.) argitaratu zela, eta 2009ko irailaren 4an sartu dela indarrean.<br><br>Zarautzen, 2009ko irailaren 4a<br>Idazkaria | |

| | |
|---|---|
| **~~1. ERANSKINA~~**<br><br>**~~BEHIN-BEHINEKO INSTALAZIOEK (TXOSNEK…) BETE BEHAR DITUZTEN GUTXIENEKO BALDINTZA TEKNIKO-SANITARIOAK JAIAK, AZOKAK… DIRELA-ETA, ELIKAGAIAK ETA/EDO EDARIAK MANEIATU, PRESTATU EDO SALTZEN DITUZTENEAN~~**<br><br>**~~A.- INSTALAZIO, MATERIAL ETA TRESNERIAREN BALDINTZAK~~**<br><br>~~1) Beren eginkizun espezifikoak ez direnetatik egoki bereizita eta isolatuta egongo dira.~~<br><br>~~2) Zikinkeria nahiz kutsaduratik edo osasunari kalte egin diezaiokeen beste edozein arrazoitatik tarte egokira kokatuko dira.~~<br><br>~~3) Instalazioak jartzen diren lekuetako zoruaren eraikuntzako ezaugarriek garbiketa eta desinfekzio egokia ahalbidetuko dute.~~<br><br>~~4) Instalazioek behar bezalako sabaia izango dute, eguraldi txarretik babestuta egongo dira eta maneiatze eta/edo biltegiratze guneetara jendearen sarrera eragozteko moduan jarrita.~~<br><br>~~5) Elikagaiak maneiatzen diren gainazalak edo elikagaiak ukitu ditzaketenak lauak, ez xurgatzaileak, eta garbitzen nahiz desinfektatzen errazak diren materialez egindakoak izango dira.~~<br><br>~~6) Instalazio eta tresneriaren garbiketarako nahiz langileak garbitzeko beharrezkoa den beste edateko ur edukiko dute. Hustubideak estolderiara lotuko dira.~~<br><br>~~7) Aireztapena izango dute, eta beharrezkoa bada baita ke eta gas erauzgailua ere,~~<br><br>~~8) Hozkailuak izango dituzte, edukiera nahikoa izanik eta egoki banaturik lehengaiak eta produktu prestatuak isolatuta biltzeko moduan.~~<br><br>~~9) Instalazio egokiak izango dituzte (apalak, armairuak…) produktu ez galkorrak, tresneria, garbigarriak eta desinfektatzaileak biltzeko, betiere egin behar den lan kopuruaren arabera.~~<br><br>~~10) Hondakinak biltzeko itxigailu hermetikodun estalkia duten ontziak edukiko dituzte. Horien hustuketa behar den bestetan egin beharko da, hondakinak pilatu ez daitezen.~~<br><br>~~11) Establezimendu eta instalazioen kanpoaldean ontziak edukiko dira erabilera bakarreko platerak, edalontziak eta mota guztietako ontziak botatzeko poltsa eta guzti.~~<br><br>**~~B.- INSTALAZIO ETA TRESNERIAREN HIGIENEARI BURUZ~~**<br><br>~~- Instalazio eta laneko tresna guztiak erabat garbi egon beharko dira denbora guztian.~~<br><br>~~- Garbitzeko sistema guztietan egin beharrekoa: garbiketa baimendutako garbigarri batekin egin eta ondoren ur askorekin xaboia kendu.~~<br><br>~~- Behar besteko edukiera duen ontzi-garbigailurik eduki ezean,~~ | |

| | |
|---|---|
| ~~edalontziak, platerak, mahai-tresnak edo beste mota batzuetako edukiontzi guztiak erabilera bakarrekoak izango dira, erabili eta botatzekoak.~~<br><br>~~**C.- LANGILEEZ**~~<br><br>~~1) Elikagaiak maneiatzen dituzten langileek jantzi egokia, osoa eta esklusiboa erabiliko dute. Beti garbi-garbi eduki beharko dute.~~<br><br>~~2) Denbora guztian higiene pertsonal ezin hobea izan beharko dute.~~<br><br>~~**D.- LEHENGAIEI ETA PRESTATUTAKO PRODUKTUEI BURUZ**~~<br><br>~~— Baimenduta eta behar bezala identifikatuta (etiketak, fakturak edo beste dokumentazio bat) dauden lehengaiez eta prestatutako produktuez horrnituko dira.~~<br><br>~~— Elikagaiak direnak eta ez direnak ez dira elkarrekin biltegiratuko.~~<br><br>~~— Elikagai gordinek eta prestatutako produktuek ez dute elkar ukitu behar prestatzen, biltegiratzen nahiz kontserbatzen diren bitartean.~~<br><br>~~— Elikagaiak ezingo dira lurzorua ukitzen egon biltegiratzeko, maneiatzeko edo sukaldean prestatzeko inongo prozesutan.~~<br><br>~~— Jendaurrean jarritako lehengaiak eta/edo prestatutako produktuak jendearengandik behar bezala bereizita egon beharko dira, beira-arasa, ontzi edo estalkien bidez.~~ | |

| JARDUERA PROTOKOLOA | JARDUERA PROTOKOLOA |
| --- | --- |
| **Udaltzaingoa** arduratuko da lizentzia bakoitzean ezartzen diren baldintzak betearazteaz, eta baldintzen betetzeari buruzko txosten xehatua egingo du~~. Txostenean ondorengo alderdiak bete ote diren zehaztuko da gutxienez:~~ | **Udaltzaingoa** arduratuko da lizentzia bakoitzean ezartzen diren baldintzak betearazteaz, eta baldintzen betetzeari buruzko txosten xehatua egingo du |
| ~~1. Instalazio kopurua (postuak, txosnak… )~~<br>~~2. Instalazioak zenbat egunetan egongo diren kokatuta (irekitzeko eta muntatzeko/desmuntatzeko baimena)~~<br>~~3. Instalazioen kokapena~~<br>~~4. Lizentzian ezarritako jarduera ireki eta ixteko ordutegiak~~<br>~~5. Lizentzian ezarritako soinu-mailak betetzen ote diren (horien neurketak)~~<br>~~6. Edozein ez-betetzeren arduradunak identifikatzea~~<br>~~7. Motordun ibilgailuekin zirkulatzeko edo horiek aparkatzeko debekua betetzen ote den, horretarako ez diren zonetan (hala badagokio)~~<br>8. ~~Horren inguruan jasotako kexak, kexa horien kopia batekin batera~~ | |
| Ondorio guztietarako, baimenean zehaztutako talde eta pertsonak izango dira erantzuleak. | Ondorio guztietarako, baimenean zehaztutako talde eta pertsonak izango dira erantzuleak. |
| **Bulego Teknikoa** arduratuko da lizentzia bakoitzean ezartzen diren baldintzak betearazteaz eta baldintzen betetzeari buruzko txosten xehatua egingo du. Txostenean ondorengo alderdiak bete ote diren zehaztuko da gutxienez: | **Bulego Teknikoa** arduratuko da lizentzia bakoitzean ezartzen diren baldintzak betearazteaz eta baldintzen betetzeari buruzko txosten xehatua egingo du. Txostenean ondorengo alderdiak bete ote diren zehaztuko da gutxienez: |
| – Egitura edo elementuari buruzko dokumentazio teknikoa egiaztatzea. | – Egitura edo elementuari buruzko dokumentazio teknikoa egiaztatzea. |
| – Lizentziaren xede den egitura, objektuak edo material-bilketa kanpoaldean egotea. | – Lizentziaren xede den egitura, objektuak edo material-bilketa kanpoaldean egotea. |
| – Ingurua errespetatu eta garbi-garbi mantentzea, batez ere berdeguneak eta bertako landareak. | – Ingurua errespetatu eta garbi-garbi mantentzea, batez ere berdeguneak eta bertako landareak. |
| – Hondakinak (zaborra, papera, beira etab.) inguruetan instalatutako edukiontzietan botatzen direla egiaztatzea (hala badagokio). | – Hondakinak (zaborra, papera, beira etab.) inguruetan instalatutako edukiontzietan botatzen direla egiaztatzea (hala badagokio). |
| – Iragarkiak, kartelak eta eranskailuak horiek jartzeko lekuetan jartzen direla egiaztatzea (hala badagokio). | – Iragarkiak, kartelak eta eranskailuak horiek jartzeko lekuetan jartzen direla egiaztatzea (hala badagokio). |
| ~~– Motordun ibilgailuekin zirkulatzeko edo horiek aparkatzeko debekua betetzen ote den, horretarako ez diren zonetan (hala badagokio)~~ | |
| – Lizentzian ezarritako taldeko segurtasun eta arriskuen prebentziorako baldintzak betetzen ote diren egiaztatzea (hala badagokio). | – Lizentzian ezarritako taldeko segurtasun eta arriskuen prebentziorako baldintzak betetzen ote diren egiaztatzea (hala badagokio). |
| – Udalaren sareetara konexioak egitea baimenik gabe (hala badagokio). | – Udalaren sareetara konexioak egitea baimenik gabe (hala badagokio). |
| – Lizentziaren xede diren barrualdeko instalazioak (elektrizitatea, ura…) baimendutako instalatzaileek egiten dituztela egiaztatzea (txosnen kasuan). | – Lizentziaren xede diren barrualdeko instalazioak (elektrizitatea, ura…) baimendutako instalatzaileek egiten dituztela egiaztatzea (txosnen kasuan). |

| | |
|---|---|
| – Obrarik ez egitea, hiri-altzariak lekuz aldatzea edo kentzea baimenik gabe (hala badagokio).<br><br>~~Kultura~~ **Departamentua** arduratuko da lizentzia bakoitzean ezartzen diren baldintza guztiak betearazteaz, eta baldintzen betetzeari buruzko txosten xehatua egingo du. Txosten horretan, Udaltzaingoak eta Bulego Teknikoak adierazitako alderdiez gain, gutxienez ondorengo alderdien betetzeari buruzko informazioa agertuko da (lizentzian eskatzen badira):<br><br>- Tasaren ordainketa<br>- Fidantza jartzea<br>- Erantzukizun zibileko aseguru-poliza kontratatzea<br>- Lizentzian ezarritako soinu-mailak betetzea (soinu-mugatzailea jartzea) | – Obrarik ez egitea, hiri-altzariak lekuz aldatzea edo kentzea baimenik gabe (hala badagokio).<br><br>**Dagokion Departamentua** arduratuko da lizentzia bakoitzean ezartzen diren baldintza guztiak betearazteaz, eta baldintzen betetzeari buruzko txosten xehatua egingo du. Txosten horretan, Udaltzaingoak eta Bulego Teknikoak adierazitako alderdiez gain, gutxienez ondorengo alderdien betetzeari buruzko informazioa agertuko da (lizentzian eskatzen badira):<br><br>- Tasaren ordainketa<br>- Fidantza jartzea (hala badagokio)<br>- Erantzukizun zibileko aseguru-poliza kontratatzea<br>- Lizentzian ezarritako soinu-mailak betetzea (soinu-mugatzailea jartzea, hala badagokio) |